

(2014ko ekaina)

BAKEZALE, BAKEGILE

2001ean, Bakearen Nazinoarteko Urtea zala-eta, hauxe inoan Kofi Annan NBEko Idazkari Nagusiak: "Benetako bakea gerrarik ez izatea baino askoz gehiago da. Garapen ekonomikoa eta gizarte zuzentasuna ondorio dituan gertakaria da; ingurune globalaren zaintza eta armamentuen lehiaren 'deshazkundera' dakar; demokrazia, aniztasuna eta duintasuna, giza eskubideen eta zuzenbidezko estatuaren errespetua adierazoten dau... eta gehiago, askoz gehiago".


Urtero, 1968tik aurrera, mezua kaleratzen da Bakearen Munduko Jardunaldian. Mezuotan, gotzain desbardinek oinarri horreek gaurkotu izan dabez gizadiaren inguruabar aldakorak aintzat hartuta: Bakea nahi badozu, zuzentasunaren alde egin - Bakea zeuri be bajagotzu - Adiskidetzea, bakerako bidea - Bakea gura badozu, biziaren alde egin - Egia, bakearen iturria - Garapena eta alkartasuna: bakerako giltza bi - Bakea gura badozu, behartsuaren bila atera. Azkenak, Frantzisko aita santuarenak, goiburua hau dau: Senidetasuna, bakearen oinarria eta bakerako bidea.

Mundu mailako gatazkarik indarrean ez badago be, lekuan lekuko gatazkek ugariak izan dira eta Munduko II. Gerran beste biktimak eta milioika gizabanako eta familiaren sufrimentua eragin dabez, jazarpenen, torturen, heriotza-zigorren, jente-andanen kanporatzeen, terrorismoen, e.a., eraginez. Euskadin eta espainiar Estatu osoan badogu eskarmenturik arlo honetan ETAK eta beste erakunde batzuek ezarri izan daben indarkeriaren ondorio lez.

Bakea gura badozu, prestatu gerra, esaten zan orain dala gitxira arte. Orain, Mahatma Gandhiren pentsamentuagaz bat, zera aldarrikatzen da: ez dago bakerako biderik; bakea da bidea. Bakea gura badozu, bakea prestatu, da Eleizan atera izan diran azken agiriek suspetzen daben EDSaren ahalegina.

Irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Zer deritxagu EDSean jasoten diran idazkietan gerraren aukeraren justifikazio moralerako erabilten dan "bidezko defentsarako eskubidea" dalakoari?
2. Uneren batean, EDSak nazino desbardinaren arteko gatazketan epaile-lanak egingo leukezan eta, ondorioz, gatazka armatuak saihesteko balioko leuken "munduko agintea" sortzea proposatzen dau. Ze eretxi merezi deustu proposamenak?
3. Euskal Herrian, indarkeriaz txipriztindutako historia mingarri eta luzea bizi izan dogu. Zelan baloratuko zeunke Eleizak -gotzain, abade, laiko- gatazka honetan izan dauan esku-hartzea?
4. "Bakea gura badozu, prestatu bakea, bakezale, bakegile. EDSaren argitan, ze balio suspertu beharko geunke bakea prestatzeko? Ze konpromiso hartu behar dogu kristinau alkarte lez?





ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

Gaudium et Spes (GS)

Eliza gaurko munduan konstituzio pastoral.

1965

79. Egia esan, ***gerra ez da gizartetik erauzia izan.*** Gerra arriskua den bitartean eta nazioarteko eskudun eta dagokion ahalmenez hornitua den aginterik ez denean, bakezko akordioa lortzeko eginahalak egin ondoren, ezin daiteke gobernuei ***bidezko defentsarako*** eskubidea uka. Gobernatzailleek eta haiekin batera errepublikaren erantzukizuna dutenek, bada, beren ardurapean utzitako herrien ongizatea babestu beharra dute, arazo hain larriak kontu handiz eramanez. Baina gauza bat da indar militarra erabiltzea bidezko denez herriak babesteko, eta beste bat beste nazioak menderatu nahi izatea. Gerra-ahalmenak ez du haren erabilera militar nahiz politiko oro zilegi egiten. Eta, zoritxarrez, gerra-sua sor dadinean ere, ez da guztia zilegi gudularien artean.

81. Beraz, berriro adierazi behar da: ***armamentuen lehia gizadiaren izurrite larri-larria da*** eta ezin jasan ahalako eran kalte egiten die behartsuei. Benetan beldur izatekoa da, horrek iraunez gero, noizbait eragingo dituela zorigaitzoko hondamendi guztiak, jadanik ari baita horretarako bideak prestatzen. Gizadiak sorrarazi dituen zorigaitzez oharturik, erabil dezagun dugun geldiunea, goitik emana zaiguna, geure erantzukizunaz hobeki jabeturik, ***gizakiari ondoen dagokion eran geure gatatzak konpontzeko bideak aurki ditzagun.*** Jainko-Probidentziak gerraren antzinako morrontzatik aska gaitzela eskatzen digu guri. Izan ere, ahalegin hau egiteari uko eginez gero, ez dakigu nora eraman gaitzakeen hasia dugun bide txar honek.

Bakearen Munduko XXXV. Jardunaldirako mezua

Ez dago bakerik zuzentasun barik. Ez dago zuzentasunik parkamen barik. Joan Paulo II.a

2002

4. Terrorismoa gorrototik sortzen da eta isolamendua, mesfidantza eta bazterketea eragiten ditu. ***Indarkeria indarkeriari eransten jako, belaunaldi barriak be kutsatu egiten dituan zoritxarreko kiribilean,*** aurreko belaunaldiak banandu dituan gorrotoa heredatuz. Terrorismoa gizakiaren biziaren gaitzespenean oinarritzen da. Hain zuzen be horregaitik, krimen jasanezinak egiteaz gainera, berez, izua estrategia politiko eta ekonomikorako bitarteko lez, gizadiaren aurkako benetako krimena da.

5. ***Terrorismotik defenditzeko eskubidea dogu,*** beraz. Beste edozein eskubide lez, ***arau moral eta juridikoen menpe egongo da*** honako hau be, ***helburuen zein bitartekoen aukeraketari*** jagokonez. Errudunen identifikazioa behar bezala egiaztatu behar da, erantzukizun penala beti dalako pertsonala eta, beraz, ezin dalako terroristen nazinoetara, etnietara edo erlijinoetara hedatu. Jarduera terroristaren aurkako nazinoarteko lankidetzak be ***aparteko konpromisoa*** ekarri behar dau arlo politiko, diplomatiko eta ekonomikoan, egitasmo terroristen jatorrian aurkitu daitezkezan zapalketazko eta bazterketazko balizko egoerak ausardiaz eta erabagiz konpontzeko.



Bakea prestatu

Bilbao, Donostia eta Gasteizko gotzainen pastoral idazkia.

2002

5. Herri hau baketzeak berekin ditu, jakina, **ETAren amaiera** eta honi aurre egiteko ahalegin garbi eta bateratua. Baina bakea iristeko konpondu behar diren arazoak ez dira hor bukatzen. Gure herri honetan bakea egiteko dauden zailtasunak ulertu eta gainditzeko ezinbestekoa da aspalditik datorren beste errealitate bati behar bezala heltzea. Ikerketa guztiek behin eta berriz jartzen dute agirian **nortasun nazional erabat edo partzialki kontrajarriak** eta batzuetan gatazkatsuak daudela...

Denak eskubide beteko herritar dira erkidego honetan eta **begirune zor zaie** hala direlako. Nortasunen aniztasun gatazkatsu honek bizikidetza formula bat eskatzen du non talde bakoitzak bere helburu zilegiak moderatu ditzan gizartea baketzeko, hori askoz balore ederrago eta beharrezkoagoa baita talde guztien helburu guztiak bete ezin izatea baino.

Kristogaz bakegile

Bilboko eleizbarrutiko pastoral ekiturtearen hasierako mezua. Mario Izeta.

2011

Bakea, era berean, **eragindako kaltea** autortzeko eta, **ahal da neurrian, konpontzeko** gaitasunaren frutua da, egia eta zuentasuna ezartzearena, parkamena eskatzeko apaltasun eta adorearena eta emoteko eta onartzeko bihotz-eskuzabaltasun eta zabalerarena. **Terrorismoari eta Indarkeriari behin betiko uko egitetik harago doan** adiskidetzearen bide luze eta neketsuan, Eleizak Kristoren ukendua eskaini gura dau zauriak osatzeko, oinazean kontsolatzeko, banaketaren harresiak botateko eta gizarte zuzen, adiskidetu eta baketsuaren eraikuntzan laguntzeko. Bide horretan ez da zailtasunik faltako baina ezta **Jaungoikoaren laguntasunik be** eta guk, ikasle eta lekukoen alkarte lez, erabagiz ahalegindu eta saiatu behar dogu, bialtzen gaituan Kristo Jesusi leialtasuna erakutsiz.

Evangelii Gaudium (EG)

Ebanjelioaren iragarpena gaurko munduan burubide apostolikoa. Frantzisko.

2013

59. Gaur, leku askotan eskatzen da segurtasun gehiago. Baina gizarte baten barruan eta herri desbardinaren artean bazterketa eta zuentasunik eza gainditzeko ez diran bitartean ezinezkoa izango da indarkeria errotik kentzea. Indarkeria leporatzen jake behartsuei eta herri txiroei baina, aukerei jagokenez bardintasunik ez badago, erasoak eta gerra egiteko modu desbardinek lehenago ala beranduago eztanda egingo dauan **haztegia** aurkituko dabe. Gizarteak –lekukoa, nazionala edo mundukoa- bere zati bat kanpoaldean abandonatuta izten dauanean, ez da nasaitasuna muga barik ziurtatuko dauan egitasmo politikorik, bitarteko polizialik edo adimenezkorik izango. Hau ez da gertatzen zuentasunik ezak sistematik kanporatutakoen erantzun bortitza eragiten daualako bakarrik, gizarte eta ekonomia sistema sustraitik dalako bidebakoa baino. Onak zabaltzeko joerea dauan lez, onartutako gatazkak, hau da, bidebakokeriak, bere indar kaltegarria hedatzeko eta edozein sistema politiko eta sozialaren –baita itxuraz sendotzat jo daitezkezanen- oinarriak isilean hondatzeko joerea dau.



OTOITZ EGITEKO

(Is 2, 4-5)

Harek epaituko ditu nazinoak, erabagiko herrialde askoren auziak. Ezpatak golde bihurtuko dabez eta lantzak igitai.

Ez da nazinorik nazinoren aurka altxatuko, ez dira gehiago gudurako prestatuko. Ea, bada, Jakoben herri, ibili gaitezan Jaunaren argitan!

(Jn 14,27)

Bakea, neure bakea, emoten deusuet; nik emoten deusuedan bakea ez da munduarena lakoa. Ez kezkatu, ez izan bildur.

(Jn 20,21)

Bakea zuei. Aitak ni bialdu nauan lez, nik zuek bialtzen zaituet.

(Mt 5,9)

Zorionekoak bakegileak, hareek ditu-eta Jaungoikoak seme-alabatzat hartuko.

71 SALMOA

– Mendiak bakea ekarri daiela
eta muinoek zuzentasuna.
Berak zaindu daizala herriko apalak,
behartsuaren semeei laguntza egin daiela
eta zapaltzailea hausi daiela.

- Eguzkiak adina iraun daiela,
ilargiak adina, gizaldiz gizaldi;
euria bedartzara lez jatsi daitela,
lurra busti-busti egiten dauan zirimiria lez.

– Haren egunetan, zuzentasuna loratu daitela,
baita bakea be, ilargia itzungi arte;
itsasotik itsasora nagusi izan daitela,
lbai Handitik lehor-mugaraino.

- Deadarka ziharduan behartsua berak aterako dau onik,
baita laguntzailerik ez eukan errukarria be;
bera izango jako erruki behartsu eta eskekoari,
berak zainduko dau behartsuen bizia;
berak atarako dauz indarkeriatik hareen biziak,
hareen odola haren aurrean baliotsu izango da.

– Garia ugari izan daitela soloetan,
ziri-zara egin daiela mendi-tontorretan;
emon daiela frutua Libanok lez,
eta zelaiko bedarra lez erne daitezala galburuak

- Haren izena betiko izan daitela,
eta haren izen onak eguzkiak adina iraun daiela;
bera izan daitela herri guztien bedeinkapena,
eta lurreko enda guztiek zorionsutzat autortu daiela.

– Bedeinkatua izan daitela Jauna, Israelgo Jaungoikoa,
mirariak egiten bakarra dana;
bedeinkatua betiko Haren izen ospetsua;
bete daiela lurra Haren aintzak.

BAKE MINA (PANTXO ETA PEIO)

Gizadiak maite-mina,
izadiak arreta-mina,
etorkinak herri-mina,
herri hunek bake-mina.

Laborari ta langile,
sinestedun ta bilatzaile,
bidez-bidez, kalez-kalez,
izan gaiten bakegile.

Zatiketak etsipena,
elkarketak itxaropena,
gorrotoak pairamena,
barkamenak askapena.

Solasbide, elkarbide,
maitabide ta askabide,
zuzenbide, bakebide,
oro dire zorionbide.

